

DIRUA ETA BANKU SISTEMA

1. Zer da dirua?
2. Diru agregatuak
3. Diruaren eskaria
4. Nola sortzen da banku-dirua?
5. Diru-biderkatzailea

Diruaren definizioa

- Dirua trukerako eta ordaintzeko onartutako bidea da.
- Dirua da gure arteko harreman eta truke ekonomikoak aurrera eramatekoonartzen dugun guztia.

Diruaren balioa konfiantzan eta ohitura sozialean datza;

Diruaren funtzioak

- ① trukerako bitartekoa da,
- ② zenbatzeko unitatea da eta
- ③ balio gordailua da.

Diruaren funtzioak

① **TRUKERAKO BITARTEKOA:**

Dirua ondasunen eta zerbitzuen truke orokorrean onartzen den objektua da.

Dirurik ez balego, ondasun eta zerbitzu jakin batzuk zuzenean beste ondasun eta zerbitzu batzuen ordezkari gisa trukatu beharko genituzke:

horri trukea deitzen zaio.



② **ZENBATZEKO UNITATEA:** Dirua ondasunen eta zerbitzuen balioa neurtzeko eta adierazteko unitatea da

③ **BALIO GORDAILUA:**

Dirua gorde egin daiteke eta geroago erabili ondasunen eta zerbitzuen truke (diruak denboran zehar bere balioa mantendu dezake)

⇒ Funtzio horren arabera, dirua gure aberastasuna mantentzeko modu bat da.

- Baina diruak badu desabantailarik ere: inflazioak diruaren balioa murriztu egiten du.
- Bestalde, diruak ez du interesik (errentagarritasunik) ematen
- Hori dela eta, dirua ez da aberastasuna mantentzeko modu bakarra.


Jendea saiatuko da bere aberastasunari beste objektu edo merkantzia batzuetan eusten (adibidez, etxebizitzetan, bitxietan, artelanetan eta abarretan).

Diru mota ezberdinak historian zehar

Billeteek ezaugarri ideal horiek dituzte, *berezko* baliorik ez izan arren. Gainera, erraz gorde, eraman eta truka daiteke.

Berezko baliorik ez duen diruari *diru fiduziariora* deitzen zaio eta, agintaritzak ofizialak legearen indarrez ematen dio balioa, ondorioz dirutzat onartzen du jendeak.





Dirua, finantza-aktibo gisa

Aktiboa: Aberastasuna mantentzeko edozein modu da. **Hiru aktibo mota daude:**

- **Aktibo errealak**: Ondasun fisikoak (etxebizitzak, automobilak, bitxiak, artelanak...).
- **Finantza-aktibo ez monetarioak**: Ez dira materialak, (akzioak, bonoak, zor publikoa, eta abar)
- **Dirua edo finantza-aktibo monetarioak**: Esku-dirua (txanponak eta billeteak) eta bankuko gordailuak.

• Zer bereizgarri du diruak, beste aktiboekin alderatuta?

- ✓ **Likidezia** (aktibo batek diru —ordainbide— bihurtzeko daukan erraztasuna) ⇒ Dirua aktiborik likidoena da.
- ✓ **Errentagarritasuna** (aktibo batek ematen duen irabazia edo interesa) ⇒ Diruaren errentagarritasuna hutsa da.
- ✓ **Arriskua** (aktibo batek daukan zalantza edo ziurgabetasuna balio duena) ⇒ Diruaren arriskua oso txikia da (baina ez nulua).

Diru agregatuak

- **Diru legala (zirkulazio fiduziariora, esku-dirua):** Txanpon eta billete guztiak (1+2)
Familien eta enpresen eskuetan alde batetik, (2)
eta bankuen eskuetan, beste aldetik, (1)
- **Banku Zentraleko gordailuak:** Bankuek Banku Zentralean mantentzen dituzten gordailuak (3)
- **Bankuko erreserbak (R) edo banku-sistemako kutxako aktiboak:** Bankuek daukaten esku-diruak, batetik, eta bankuek Banku Zentralean mantentzen dituzten gordailuek, bestetik, osatzen dute diru agregatu hori. (1+3)

Banku-dirua nola sortzen eta biderkatzen den

Bankuek dirua sortzen dute,

Baina ez dute diru legalik (txanpon eta billetek) sortzen, banku-dirua baizik, hots, gordailuak baizik.

Nola baina?

Banku-dirua nola sortzen eta biderkatzen den

- ▶ **Gizabanakoek eta enpresek beren diruaren zati txiki bat bakarrik edukitzen dute esku-dirutan.**

Gainerakoa bankuetan gordetzen dute, gordailu gisa

- ▶ **Ondorioz, bankuek beren bezeroengandik jasotako diru osoaren (gordailu guztien) zati txiki bat baino ez dute gordetzen.**

Gainerakoa maileguz ematen dute, eta horrela hasten da gordailuen prozesu biderkatzailea.

Banku-dirua nola sortzen eta biderkatzen den

Banku-diruaren sortze-prozesua ulertzeko, beharrezkoa da ondorengo bi kontzeptu hauek ondo ezagutzea:

bankuko erreserbak edo kutxa-koefizientea, batetik,
eta esku-diru/gordailu koefizientea, bestetik.

Azter ditzagun jarraian.

Bankuko erreserbak edo kutxa-koefizientea

Bankuko erreserbek bi osagai dituzte:

1. Bankuek beren altzairuzko kutxetan giltzapean daukaten diru legala edo esku-dirua eta,
2. Banku Zentralean dauzkaten gordailuak.

Bankuko erreserbak (R) aktibo guztiz likidoak dira

⇒ **Bi multzotan banatzen dira:**

- ⇒ **bankuko erreserba legalak (RL) eta**
- ⇒ **bankuko erreserba gehigarriak (RG):**

$$R = RL + RG$$

Erreserba legalak edo derrigorrezkoak (RL):

Bankuek nahitaez gorde behar dituzten erreserben kantitate minimoa da, legearen indarrez

Erreserba legal horiek ezin dira maileguz eman;

Banku Zentralean gordetzen dira

$$R = RL + RG$$

Erreserba gehigarriak (RG):

Bankuek, beraiek gordetzen dituzten erreserbak dira, derrigorrezko erreserba minimoez gain.

Erreserba gehigarri horien funtzioa argia da: eguneroko eragiketarako bankuen likidezia bermatzea.

Bankuko erreserbak edo kutxa-koefizientea

Bankuko erreserbak gordailuen proportzio moduan kalkulatzen dira.

kutxa-koefizientea (r):

$$\text{Kutxa-koefizientea: } r = \frac{\text{Erreserbak}}{\text{Gordailuak}} = \frac{R}{G}$$

Bankuko erreserbak edo kutxa-koefizientea

Adibidea: Demagun $r = 0,05$ dela (hau da, % 5).

Horrek zer adierazten du?

Bankuko gordailuen % 5 erreserba gisa gordetzen dela.

Horrela, bankuek beren gordailuen % 5aren likidezia bakarrik bermatzen dute (bezeroei, esku-diru bila datozenean, erantzun ahal izateko);

Bankuko erresebak edo kutxa-koefizientea

Bankuan gordetako 100 euroen berme likido gisa 5 euro baino ez daude (erresebak).

Hau da, bankuak 5 euro soilik mantenduko ditu erresebatuta, bezeroei dirua ateratzera datozenean erantzun ahal izateko.

Gainerakoa (95 euro) maileguak emateko baliatuko du bankuak.

Bankuko erresebak edo kutxa-koefizientea

Erreserba osoak (R) erreserba legaletan (RL) eta erreserba gehigarrietan (RG) banatzen direnez,

kutxa-koefizientea ere kutxa-koefiziente legalaren (r_L) eta erreserba gehigarrien koefizientearen (r_G) arteko batura izango da:

$$R = RL + RG \text{ denez gero,}$$

$$r = r_L + r_G \text{ ere betetzen da}$$

Bankuko erreserbak edo kutxa-koefizientea

► **Kutxa-koefiziente legala (r_L):**

Erreserba legalak (RL) gordailuekiko (G) osatzen duten ehunekoa; hots, bankuek beren gordailu guztietatik, legeak hala aginduta, erreserba moduan mantendu behar duten ehunekoa:

$$\text{Kutxa - koefiziente legala } (r_L) = \frac{\text{Erreserba legalak (RL)}}{\text{Gordailuak (G)}}$$

Bankuko erreserbak edo kutxa-koefizientea

► **Erreserba gehigarrien koefizientea (r_G):** Erreserba gehigarriak (RG) gordailuekiko (G) osatzen duten ehunekoa:

$$\text{Erreserba gehigarrien koefizientea } (r_G) = \frac{\text{Erreserba gehigarriak (RG)}}{\text{Gordailuak (G)}}$$

Bankuak, finantza-bitartekari

Bankuen jarduerak balantzearen bi aldeetan (aktiboan eta pasiboan) eragiten du:

- ▣ Aktiboak adierazten du bankuak zer daukan (erreserbak, maileguak, eta abar).

- ▣ Pasiboak adierazten du bankuak zer zor duen (zeintzuk diren bere finantza-iturriak: bezeroen gordailuak, Banku Zentralaren maileguak, eta abar).

Bankuak, finantza-bitartekari

Adibidea: Nolako izango litzateke banku baten balantzea, baldin eta 900 euroko gordailuak jasoko balitu eta kutxa-koefizientea % 2,5 balitz ($r = r_L + r_G = 0,025$)?

AKTIBOA	PASIBOA
Erreserbak (R) = $0,025 \cdot 900 = 22,5$	Gordailuak (G) = 900
Maileguak (Maileg.) = 877,5	

Esku-diru/gordailu koefizientea

Esku-diru/gordailu koefizienteak (e) honako hau adierazten du:

Esku-diru/gordailu koefizientea: $e = \frac{EMP}{G}$

Esku-diru/gordailu koefizientea

Ariketa 1: Gizabanako batek 150 € baditu esku-dirutan eta 1.000 € gordailuetan, zer e koefiziente du?

Esku-diru/gordailu koefizientea

Ariketa 1: Gizabanako batek 150 € baditu esku-dirutan eta 1.000 € gordailuetan, zer e koefiziente du?

$$e = \frac{EMP}{G} = \frac{150}{1.000} = 0,15 \rightarrow \text{Gizabanako horrek esku-dirutan duen kantitatea bere bankuko gordailuen \% 15 da. Hots, 150 euro 1.000 euroren \% 15 da.}$$

Esku-diru/gordailu koefizientea

Ariketa 2: $e = 0,25$ baldin bada, zenbat diru izango du esku-dirutan eta zenbat gordeko du bankuan?

Esku-diru/gordailu koefizientea

Ariketa 2: $e = 0,25$ baldin bada, zenbat diru izango du esku-dirutan eta zenbat gordeko du bankuan?

Erraza da:

$$e = 0,25 = \frac{25 \rightarrow \text{EMP}}{100 \rightarrow \text{G}} \quad \rightarrow$$

125 euro baditu, 25 euro esku-dirutan izango ditu (% 20) eta beste 100 euroak bankuan, gordailu moduan (% 80).

Banku-dirua nola sortzen den: adibidea

- ❶ Kutxa-koefizientea % 10 da ($r = 0,1$) \Rightarrow gordailuen % 10 erreserba moduan mantenduko dituzte.
- ❷ Esku-diru/gordailu koefizientea 0,25 da ($e = 0,25$) \Rightarrow dirutza osoaren % 80 bankuan sartuko du gordailu gisa, eta beste % 20 esku-dirutan izango du.
- ❸ Gizabanakoek dirutza jakin bat jasotzen duten bakoitzean, banku ezberdinetan sartuko dute gordailu moduan